



## **MINGAIN URDINAREN FOKU BATEN ADIERAZPENA DELA-ETA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO (EAE) BEHI, ARDI ETA AHUNTZ AZIENDEN USTIATEGIETAKO TXERTAKETA ETA MUGIMENDUAK ARAUTZEN DITUZTEN BALDINTZAK EGUNERATZEA.**

Ardi aziendaren katarro sukarraren edo mingain urdinaren gaitza etiologia birikoko gaixotasun bat da, hainbat espezieetako hausnarkariei eragiten die, eta Culicoides generoko eltxo jakin batzuek transmititzen dute. Gipuzkoak duela urte batzuk izan du gaixotasun hori, eta txerto espezifiko baten bidez kontrolatu eta desagerrarazi zen. Hala, frogatu da gaixotasun hori kontrolatzeko eta haren aurka borrokatzeko armarik eraginkorrena dela.

Mingain urdina eskualde edo herrialde batean agertzeak ondorio sanitario eta ekonomiko handiak ditu, eta Animalien Osasunaren Nazioarteko Erakundearen Gaixotasunen Zerrendaren barruan dagoen nahitaez adierazi beharreko gaixotasuna da. Horren ondorioz, debekatuta dago animaliak, hazia eta enbrioak esportatzea, eta mugatuta daude herrialde barneko mugimenduak, abeltzaintza azokak eta bestelako animalien kontzentrazioak.

2024ko urriaren 30ean, mingain urdinaren gaixotasunaren foku bat deklaratu da Oiartzungo udalerrian.

**Ondorioz, mingain urdinaren gaixotasuna kontrolatzeko beharrezko neurri hauek hartzea erabaki da:**

1. Gipuzkoako lurralde osoa mingain urdinaren 8. serotipoko eremu mugatua deklaratzeko.
2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko behi eta ardi azienden ustiategietan mingain urdinaren 8. serotipoaren aurkako nahitaezko txertaketa ezartzea.
3. Hiru hilabetetik gorako behi eta ardi espezieetako animalia guztiak txertatuko dira, erabilitako txertoaren zehaztapenen arabera. Behi espeziearen kasuan, bi hilabete baino gehiagoko animaliak txertatu ahal izango dira, aldez aurretik immunizatuta ez dauden ametatik badatoz.
4. Berehala hasiko da mingain urdinaren 4. eta 8. serotipoen aurkako nahitaezko txertaketa kanpaina. Ardi azienden kasuan, 2025eko urtarrilaren 15a baino lehen jarri behar da txertoa, eta behien kasuan, 2025eko martxoaren 15a baino lehen.
5. Txertoa «UTE GIABERE – Saneamendu zerbitzuak» enpresako albaitariak jarriko dute. Enpresa hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko animalien osasun zerbitzuen kontratuaren esleipenduna da.
6. Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartuko ditu txertoa eskuratzeko eta aplikatzeko gastuak, berak antolatutako txertaketa kanpainaren barruan (bi aplikazio behien kasuan eta bat ardietan). Txertaketa kanpainatik kanpo egiten diren txertaketetan, txertoa emateko kostuak abeltzainaren kontura izango dira.



7. Gipuzkoako Lurralde Historikoan jatorria duten behi, ardi eta ahuntz espezieetako abereen mugimendua mugatzea agintzen da. Ahuntz aziendaren kasuan, ez da txertaketa eskatuko, ezta PCR probak egitea ere.

Mugimenduak **I. eranskinean** jasotako baldintzetan egin beharko dira.

Txertatutako ustiategi batetik datozen animaliak zein txertatu gabeko animaliak badira, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora animaliak garraiatzeko gida Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuari eskatu beharko zaio (tel.: 943112987), eta eskaerarekin batera aurkeztu beharko dira: Ustiategian Animaliak Desintsektatzeari buruzko Erantzukizunpeko Adierazpena, Garraiobideen Desintsektatzeari buruzko Erantzukizunpeko Adierazpena, baita, hala badagokio, PCR probaren emaitzak ere.

8. Mihi urdina dutela susmatzen bada, animalia horien titularrek edo edukitzaileek lehenbailehen jakinarazi beharko diote ustiategiko albaitariari.

9. Gaitza izan dezaketen animalien jabeek eta edukitzaileek honako higie eta osasun neurri hauek hartzea gomendatzen da, gaixotasunaren hedapena geldiarazteko:

- a. Animaliak intsektuen ziztadetatik babesteko neurriak hartu beharko dira, horretarako behar diren intsektuak uxatzeko produktuak erabilia eta, betiere, debeku aldiak errespetatuta.
- b. Ahal izanez, gero animaliak toki itxitan edukiko dira bektoreen jarduera orduetan.
- c. c) Ukuiluak eta inguruak tratatu beharko dira baimendutako intsektiziden bidez.

**Garraiobide eta instalazioetarako** erregistratutako intsektiziden zerrenda:

[https://www.mapa.gob.es/es/ganaderia/temas/sanidad-animal-higiene-ganadera/listainsecticidasregistradosmapa\\_la01082024\\_tcm30-650737.pdf](https://www.mapa.gob.es/es/ganaderia/temas/sanidad-animal-higiene-ganadera/listainsecticidasregistradosmapa_la01082024_tcm30-650737.pdf)

**Ohar honetan adierazitako baldintzak gaixotasunaren bilakaeraren arabera alda daitezke**

**NEKAZARIZAKO ETA ABELTZAINZAKO SUSTAPEN ETA OSASUN ZERBITZUA**



## 1. ERANSKINA

<b>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN BARRUKO MUGIMENDUAK</b>	
<b>Hiltegirako.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>. Animaliek ezingo dute gaixotasunaren sintoma klinikorik izan jatorrizko ustiatégian</li> <li>. <b>Ez da beharrezkoa animaliak uxatzeko produktuekin tratatzea</b></li> <li>. Animaliak kargatu baino lehen, intsektuak hiltzeko tratamendua jaso duten ibilgailuetan garraiatuko dira (48 ordu gehienez).</li> </ul>
<b>Bizitzarako</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>. Animaliek ezingo dute gaixotasunaren sintoma klinikorik izan jatorrizko ustiatégian</li> <li>. Animaliak aldeztatik aurretik desintsektatuak izan beharko dira.</li> <li>. Animaliak kargatu baino lehen, intsektuak hiltzeko tratamendua jaso duten ibilgailuetan garraiatuko dira (48 ordu gehienez).</li> </ul>
<b>Abeltzaintzako azokak, txapelketak, sokamuturrak eta beste kontzentrazio batzuk</b>	<p style="text-align: center;"><b>Azaroaren 30era arte</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. <b>Behi aziendaren</b> kasuan, ustiatégi osoak gutxienez txertoaren lehen dosia jaso beharko du</li> <li>. <b>Ardiek</b> txertatuta egon beharko dute</li> <li>. Animaliek ezingo dute gaixotasunaren sintoma klinikorik izan jatorrizko ustiatégian</li> <li>. Animaliak aldeztatik aurretik intsektuak hiltzeko tratamendua jaso beharko dute</li> <li>. Animaliak kargatu baino lehen, intsektuak hiltzeko tratamendua jaso duten ibilgailuetan garraiatuko dira (48 ordu gehienez).</li> </ul>
	<p style="text-align: center;">Abenduaren 1etik aurrera</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Espezie guztientzat, txertaketa-pauta osoa</li> <li>. <b>Behi aziendaren</b> kasuan, ustiatégian txertatu gabeko animalia berriak sartzen badira edo ustiatégiko txertaketaren ondoren 3 hilabete baino gehiago dituzten animalien kasuan, 14 eguneko babestu ondoren (animaliaren desintsektazioa) egindako PCR negatiboa aurkeztu ahal izango dute. Emaizta 10 eguneko balioa izango du. Animalia babestuta egongo da garraiatu arte. PCRaren kostua abeltzainak ordainduko du.</li> <li>. Animaliek ezingo dute gaixotasunaren sintoma klinikorik izan jatorrizko ustiatégian</li> <li>. Animaliak aldeztatik aurretik desintsektatuak egongo dira</li> <li>. Animaliak kargatu baino lehen, intsektuak hiltzeko tratamendua jaso duten ibilgailuetan garraiatuko dira (48 ordu gehienez)</li> </ul>
<b>Idi-demak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>. Animaliek ezingo dute gaixotasunaren sintoma klinikorik izan jatorrizko ustiatégian</li> <li>. Animaliak aldeztatik aurretik intsektuak hiltzeko tratamendua jaso beharko dute</li> <li>. Animaliak kargatu baino lehen, intsektuak hiltzeko tratamendua jaso duten ibilgailuetan garraiatuko dira (48 ordu gehienez)</li> </ul>



	<b>Abenduaren 1etik aurrera</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>. Txertaketa-jarraibide osoa (txertatu gabekoek ezin dute parte hartu)</li><li>. Animaliek ezingo dute gaixotasunaren sintoma klinikorik izan jatorrizko ustiategian</li><li>. Animaliak aldeztatik aurretik intsektuak hiltzeko tratamendua jaso beharko dute</li><li>. Animaliak kargatu baino lehen, intsektuak hiltzeko tratamendua jaso duten ibilgailuetan garraiatuko dira (48 ordu gehienez)</li></ul>
--	-------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

\* Intsektuak hiltzeko produktuekin tratatutako garraibide guztiak, Garraibideen Desintsektatzeari buruzko Erantzukizunpeko Adierazpena eraman beharko dute. Adierazpen hori gidari erantsiko zaio.

\* Animaliak desintsektatzen badira, Ustiategian Animaliak Desintsektatzeari buruzko Erantzukizunpeko Adierazpena erantsiko zaio gidari.



<b>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOTIK KANPOKO MUGIMENDUAK</b>			
<b>HILTEGIRAKO</b>	<p>. Animaliek ezingo dute gaixotasunaren sintoma klinikorik izan jatorrizko ustiategian</p> <p>. Animaliak <b>uxagarriekin tratatu</b> beharko dira aldeztatik, <b>itxarotedenborarik gabe</b>.</p> <p>. Animaliak kargatu baino lehen, intsektuak hiltzeko tratamendua jaso duten ibilgailuetan garraiatuko dira (48 ordu gehienez).</p>		
	<b>TXERTATUTAKO USTIATEGITIK</b>	<p>. Animaliek txertatuta egon beharko dute</p> <p>. <b>4</b> hilabetetik beherako animaliak aldeztatik txertorik hartu gabe mugitu ahal izango dira, baldin eta jaiotegunean ama behar bezala txertatuta badago.</p> <p>. Animaliek ezingo dute gaixotasunaren sintoma klinikorik izan jatorrizko ustiategian</p> <p>. Animaliak aldeztatik desintsektatuak egongo dira</p> <p>. Animaliak kargatu baino lehen, intsektuak hiltzeko tratamendua jaso duten ibilgailuetan garraiatuko dira (48 ordu gehienez)</p>	
<b>BIZITZARAKO, AZOKAK ETA BESTELAKO KONTZENTRATZIOAK</b>	<b>TXERTATU GABEKO USTIATEGITIK</b>	<b>BEHI AZIENDA</b>	<p>. Bektorearen erasotik gutxienez 14 egunez babestuta dagoen animalia, eta 14 egun horietatik aurrera PCRa egin zaiona. Emaitza negatiboa izango da, eta gehienez 10 eguneko balioa izango du. Epe horretan, animalia babestuta egon beharko da bektorearen erasotik, garraiatu arte. PCRrako lagina hartzean, ustiategiko animalia guztiei nahitaez jarriko zaie txertoaren lehen dosia. Abenduaren 1etik aurrera, animalia txertatuta ez badago, PCRaren kostua abeltzainak ordainduko du.</p> <p>. Animaliek ezingo dute gaixotasunaren sintoma klinikorik izan jatorrizko ustiategian</p> <p>. Animaliak aldeztatik desintsektatuak egongo dira</p> <p>. Animaliak kargatu baino lehen, intsektuak hiltzeko tratamendua jaso duten ibilgailuetan garraiatuko dira (48 ordu gehienez)</p>
		<b>ARDI AZIENDA</b>	<p>. Ustiategiko hiru hilabetetik gorako ardi guztiek txertatuta egongo dira. Mugimendua egin aurretik, abeltzainak Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuarekin jarri beharko du harremanetan, txertoa eskatzeko.</p>

\* Intsektuak hiltzeko produktuekin tratatutako garraio bide guztiak, Garraio bideen Desintsektatzeari buruzko Erantzukizunpeko Adierazpena eraman beharko dute. Adierazpen hori gidari erantsiko zaio.

\* Animaliak desintsektatzen badira, Ustiategian Animaliak Desintsektatzeari buruzko Erantzukizunpeko Adierazpena erantsiko zaio gidari.